



ZER DIRA ZURETZAT JAIK? MARRAZKI LEHIAKETA

Deia zabaltzen du: Legutioko Udala.

Partehartzaileak eta baldintzak: 2012-2020 urte bitartean jaiotako haurrak.

Epea: Marrazkiak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 10ean amaitzen da, eguerdiko ordu bietan.

Teknika: Teknika eta materialak libreak izango dira, beti ere inprimatzeko egokiak izan behar dira.

Derrigorrezko testua: Kartelean derrigorrez agertu beharko da: Jaiak niretzat...

Formatoa: 21 x 29,7 cm-ko kartela (A4) bertikalean. Ordenagailuz egiten bada eta kartela irabazlea suertatzen bada, egileak euskarri informatikoa, inprimatzeko ohiko programan erraztuko du.

Ez da onartuko irudi edota mezu sexista, xenofobo, arrazistak eta antzekoak dauzkan kartelik.

Aurkezpena: Lanak izenperik eta identifikazio daturik gabe sobre batean aurkeztuko dira, ondoko izenburuarekin “Zer dira zuretzat jaiak?” eta egilearen jaioturtea. Gutuazalearen barruan beste gutunazal bat entregatuko behar da, zeinetan egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa agertuko dira.

Kartela Legutioko Udaletxean entregatu behar da edota korreoz bidali helbide honetara: Legutioko Udaletxea. “Kartel lehiaketa 2024”. Karmen Kalea 10, 01170 Legutio (Araba).

Epaimahaia: Jai batzordea.

Saria: 3 sari

2018-2020 jaiotako haurrak 50€ Elkar Txartela

2015-2017 jaiotako haurrak 50€ Elkar Txartela

2012-2014 jaiotako haurrak 50€ Elkar Txartela

Lana aurkeztean oinarriak eta epaileen erabakia onartzen da. Epaimahaiaren erabakiaren apelaezina izango da.

Lanak originalak izan behar dira, bestelako lehiaketetan entregatu ez direnak eta egilea izango da Udaletxe eta hirugarrenen aurrean oinarrietan zehaztutakoa betetzen delaren arduradun.

Marrazki irabazleak Udaletxearen esku geratuko dira. Gainerako lanak egileei bueltatuko zaizkie.